

Esp. Zkia.- Z/G  
E.E.- 2023-00264

## 225/2023 ALKATETZA DEKRETUA:

Larrabetzuko Udaletxean, 2023ko lorailaren 16an.

OINARRIA: 2023ko lorailaren 9an, udal sarrera erregistroan E202301854 inskripzino zenbakiagaz udaleko sarreren erregistro nagusian Down sindromea duten pertsonen laguntzera bideratutako alkartea, Síndrome de Down Fundazioa (IFK: G-48679302; helbidea: Begoñako Andra Mari kalea 12-14 atzekaldea, Bilbo), zeinak diru-laguntzea eskatu eban azaldutako helburua lortzeko asmoz.

OINARRIA: Síndrome de Down daukaten pertsonak dituzten arazo ekonomiko eta sozial handiak direla eta honelako jarduerak oso garrantzitsuak dira.

OINARRIA: Honako honeetan xedatutakoa: Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorraren 22.2.c) artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 67. Artikuluan.

Honen bidez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, HAU EBATZI DOT:

LEHENENGOA.- Fundación síndrome de Down y otras discapacidades intelectuales del País Vasco Alkarteari (IFK: G-48679302; helbidea: Begoñako Andra Mari kalea 12-14 atzekaldea, Bilbo) 500,00 euroko diru-laguntzea emongo jake, 920-48101 aurrekontu-partidea zordunduta.

BIGARRENA.- Diru-laguntza hau 2023ko zezeilaren 28a baino lehen justifikauko da, 38/2003 Legearen 30. artikuluan ezarritakoaren arabera agiri honeek aurkeztuta:

- Egindako gastua egiaztetako fakturak.
- Egindako jardueren memoria.

HIRUGARRENA.- Dekretu honek oinarri arautzailearen izaerea eukiko dau, eta hemen ezarritakoaren arabera kudeatu, justifikau eta arautuko da: Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorra.

LAUGARRENA.- Prozeduran parte hartu daben beste lizitatzailerak guztiei ebazpen honen jakinarazpena egingo jake.

BOSGARRENA.- Ebazpen honen barri emongo da Udalbatzeak egingo dauen hurrengo bilkuran.

Iñigo Gaztelu Bilbao  
Alkatea